Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2269

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 27koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena; honen bidez, ezagutzera ematen da laguntzak emateko deialdia, 2010eko ekitaldirako turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko Gauzatu-Turismo programa garatzen duen Aginduak ezarritako esparruaren barruan.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2003ko ekainaren 11ko Aginduak turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzeko eta bertan inbertitzen laguntzeko Gauzatu-Turismo programa arautzen du. 2005eko maiatzaren 3ko Aginduak (2005eko maiatzaren 24ko EHAA, 96. zenbakia), 2009ko otsailaren 23ko Aginduak (2009ko martxoaren 18ko EHAA, 54. zenbakia) eta 2010eko martxoaren 31ko Aginduak aldatu zuten agindu hori.

Laguntza horiek emateko ekonomia-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan ezarritako aurrekontu-partidetatik aterako dira, eta aurrekontu horiek 2010eko ekitaldirako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legean ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Agindu horren 12. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezko da bertan finkatutako laguntzetarako deialdia egitea 2010eko ekitaldirako eta horretarako beharrezkoak diren arauak ematea.

Horrenbestez, agindu horren 12. artikuluan ezarritako eskumena erabilita, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Honako hau da ebazpen honen helburua: turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzeko eta bertan inbertitzen laguntzeko Gauzatu-Turismo programa arautzen duen Aginduan aurreikusitako laguntzak, itzuli beharreko aurrerakin gisa, 2010 ekitaldian emateko deialdia egitea.

2.– Horretarako, eman beharreko laguntzetarako guztira 2.000.000 euroko zenbatekoa ezarriko da, eta 2010. urterako Euskadiko Autonomia Erkidegoaren

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2269

RESOLUCIÓN de 27 de abril de 2010, de la Viceconsejera de Comercio y Turismo, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas, dentro del marco establecido por la Orden por la que se desarrolla el Programa Gauzatu-Turismo, de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, para el ejercicio 2010.

La Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, regula el Programa Gauzatu-Turismo, de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico (BOPV n.º 128, de 1 de julio de 2003). Esta Orden fue modificada por Ordenes de 3 de mayo de 2005 (BOPV n.º 96, de 24 de mayo de 2005), de 23 de febrero de 2009 (BOPV n.º 54, de 18 de marzo de 2009), y de 31 de marzo de 2010.

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuya regulación, para el presente ejercicio, se establece en la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010.

De conformidad a lo establecido en el artículo 12 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2010, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el citado artículo 12 de la Orden de referencia

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2010 de las ayudas, bajo la forma de anticipos reintegrables, previstas en la Orden por la que se regula el Programa Gauzatu-Turismo, de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico.

2.– Para este fin se concederá una cuantía total de ayudas de 2.000.000 de euros, soportada financieramente con cargo a los créditos asignados en los pre-

Aurrekontu Orokorretan horretarako esleituriko kredituen kargura jasango da kopuru hori finantzarioki.

Deialdi honen kontura emango diren dirulaguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko artikulu honetan ezarritako zenbatekoa edo zenbateko hori eguneratzetik ateratzen dena, indarreko legedian aurreikusitako kredituak lotzeko edo aurrekontuak aldatzeko erregimenari jarraiki. Beraz, zenbateko hori agortzen denean ez da laguntza gehiago emango, eta xedapen honek une horretan bertan utziko dio eraginkorra izateari. Kasuan kasu, bi egoera horien berri jakinarazi behar da Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen ebazpen bidez.

2. artikulua.– Eskakizunak.

1.– Eskatzaileek, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzeko eta bertan inbertitzen laguntzeko Gauzatu-Turismo programa arautzen duen Aginduan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko, adierazitako aginduaren 3. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

3. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Era berean, eskaerak eta gainerako agiri osagarriak Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietatea SAren (SPRI) bulegoetan (Urkixo zumarkalea, 36- Bizkaia Plaza Eraikineko 4. solairua, Bilbao) aurkeztu beharko dira, zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako edozein bitarteko erabilita.

2.– Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunaren biharamunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea, eta 2010eko ekainaren 30ean amaituko da, horretarako esleituriko kreditua agortu ez bada.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 27a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.

supuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010.

El volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria, no podrá superar el importe consignado en este artículo o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. No procederá por tanto la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, suspendiéndose a partir de ese momento la eficacia de la presente disposición. En su caso, de ambas circunstancias se dará publicidad mediante resolución de la Viceconsejera de Comercio y Turismo.

Artículo 2.– Requisitos.

1.– Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden por la que se regula el Gauzatu-Turismo, de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 3 de la Orden de referencia.

Artículo 3.– Solicitudes y plazo.

1.– Asimismo, deberán presentar las solicitudes y demás documentación complementaria en la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI), cuyas dependencias se encuentran en Bilbao, c/ Alameda Urquijo 36 - Edif. Plaza Bizkaia, 4.ª planta, bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Resolución de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y, en tanto no se haya agotado el crédito consignado al efecto, finalizará el 30 de junio 2010.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de abril de 2010.

La Viceconsejera de Comercio y Turismo,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.